

.....Software librea :: apustu teknologikoa.....

Softwaregintzak eta, oro har, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia [IKT] egungo gizartea aztoratzen jarraitzen dute: Informazioaren Gizartea. Edota ezagutzarena. Edo berrikuntzarena. Teknologia berriak gero eta ezagunagoak eta beharrezkoagoak ditugu. Baina hardwarea gero eta eskuragarriagoa den aroan, softwareak kontrako bidea hartu duela dirudi. Inbertsiko ikaragarriak egin behar dira berez. Eta pirateria zabaldu du honek: software jabetza berezko lizentzia ordaindu gabe eskuratzea. Baina, teknologia berriak hain beharrezkoak badira, ba al du zentzurik pirateoak? Ez al du halaber beharrezkoak izan behar guztiontzat? Pirateriak ez gaitu inoiz bustiko software librearen uretan. Horixe da software librearen helburuetako bat: software edo programak munduko errealitate ezberdinetako gizarte-kapa guztietara zabaltzea.

Software librea tokian tokiko ezaugarri eta hizkuntzetara moldagarria da: ekonomia-, gizarte- eta kultur-eredu guztietara. Software libreak ezinbestekoa zaigun askatasuna bermatzen du: askatasuna programak erabiltzeko, kopiak egiteko, beste hizkuntzetara itzultzeko, kodea aztertu, hobetu, eman, hartu eta zabaltzeko. Erabiltzaileen komunitatea da software librearen hazkunde anarkikoaren motorra. Eta elkartasuna bultzatzen du. Eta are gehiago. Informazioaren kapitalismoan software librea iraultza da: ezkertiarren arma eraginkor bakarra!. Finean, softwarea ulertzeko modu bat da: askatasunean elkar trukerako espazio komun eta kolektibo bat sortzen duen lankidetzaren eredu, bizitzeko modua. Software librea galdu ezin dugun aukera da: euskararentzat, euskaldunontzat eta Euskal Herriarentzat. Baina zer da aukera bat? Aukera bat, gehiagoren artean guk nahi duguna hautatu eta hartu ahal izatea da. Baina software librea hori baino gehiago da!. Euskal Herrian software librearen aldeko mugimendua sortzeak garapen ekonomiko, sozial eta kulturean eragin zuzena izango luke!. Beraz ez da aukera bat bakarrik: apostu bat da, apostu teknologikoa. Eta horrexegatik software librearen borroka dimentsio politikoa du, eta ekonomikoa: berebiziko aukera da herri eta hizkuntza gutxiagotuen garapenerako. Eta aukera hau ez galtzea, hein handi batean, hezkuntzaren eta administrazio eta instituzioen erantzunkizuna da.

Administrazioak software librearen aldeko apostua egiteak herrialdearen industriaren aldaketa eragingo luke. Ezarri beharreko softwarea librea izaki, garapena tokian tokikoa izango litzateke: sare ekonomiko lokal potentzia sortuz, atzerriko edo bestelako enpresen txontxongilo izan gabe. Eta honek ezagutza teknologikoko sare sozialaren indartzea, sendotzea ekarriko luke!. Euskararen Herrian errealitate administratiboak lausotzen duen erroka, software librearen argitzen digu: tresna kolektibotik haratago, egungo egoera politikoa ezarritako mugak teknologikoki gainditzeko aukera eskaintzen digu. Administrazioan euskarazko software librearen aldeko mugimendua ezinbestekoa da!, benetako bultzada, jarrera estetikoetatik at. Ausart behar dute jokatu: software librea eta estandare irekiak ezartzeko erabakiak berandu baino lehen hartuz.

Unibertsitateak, eta orokorrean hezkuntza sistemak, software librearen inguruko politika aktiboagoa behar du. Hezkuntzak izan behar du software librean oinarritutako teknologia ezartzen aitzindari: lehen urratsetatik barneratuz. Barneratuz eta garatuz: euskaratik abiatuz, hizkuntza aniztasunerako teknologia sortu behar ditugu. Hau ere, berandu baino lehen: askatasunean eta elkarlanean oinarritutako euskal hezkuntza-eredu euskalduna garatzeko beharrezkoa baita software librea.

Enpresa munduak ere badu erantzunkizunik Euskal Herriaren garapen ekonomiko, sozial eta kulturean. Eta badute garaia hauek ere software librean oinarritutako soluzioak erabili, bultzatu, eta kasuaren arabera, softwarea garatu eta askatzeko. Nazioarteko enpresa handi

asko (IBM, Google, Netscape, Sun Microsystems, Zope Corp...) jada konturatu dira: software librea etorkizuna da, eta etorkizuna, irekia.

Baina guztiok profitatu behar ditugu software librearen aukerak, gure erara, gure iraultza partikularrean. Ahal eta nahi dutenek garapenean lagunduz; animatzen diren erabiltzaileek Linux sistema eragilea instalatuz; eta gainontzekoek, ahal duten neurrian, kode itxiko programarik aurruntak software librekoek ordezkatuz.

Era batean edo bestean, neurri handiagoan edo txikiagoan, guztiok izan behar dugu apostu honen protagonistak. Eta oraingoz apustu gisa planteatu behar dugulako, ezin dugu Euskal Herrian software librearen etorkizuna bermatu. Ezin dugu etorkizuna askatasunean emango dela ziurtatu. Ez baita segurua. Baina erabiltzaile gisako askatasun indibiduala, eta herri mailako askatasun kolektiboa bermatu nahi baditugu, software libreak eskaintzen digun askatasun hori defenditzeko prest egon behar dugu. Eta horretarako, gogo pixkat eta ilusio asko behar da. Ekin lanari!
